

7ER

BIZKAITARRAI
BIZKAIERAZ
25n. ZENBAKIA

URRILLA
— 1979 —



ITXASOA!

EUSKALDUNEN

LAGUN BETIKOA!

*Olako eginbearrak artzera,
oitu zaitte.
Urte bi igaro baiño len,
lau laguntza barri.*

Gauzetarako ikuspegi barria, artu-emonak izateko era barria eta geroak gaur eskatzen dauan laguntza-moltzo osotua-
goa eskintzea aitatzen dogunean, geuk daukaguzan
aurrerapen gururari egitezko erantzuna emoteko baiet-
za agertzen gagoz.

Esaterako, dana gertu daukagu eperako dirua ezar-
teko libretak izan daitezaz.

Laguntza barria da ori eta laster emongo dogu-
zan laguntza askoren artean, lenengoa.

Gure laguntzak zabaltze ta aldatze au, Biz-
kai'ko Aurrezki-Kutxak guztiontzat etorki-
zun ederrago bat egitea gura dauala
adiazoteko bidea izango da.

Etorkizuna, geroa, gaur asi bear do-
gu.

Biar emen izango da.



**BIZKAI'KO
AURREZKI KUTXA**

Geroa, bertan daukagu.



ARAUDIA

Urrilleko zenbaki au irakurleen eskuetara eldu orduko, Ego-Euskalerrriak auteskunde askean bere baietza emon izango dautso Estatutu edo Araudiari.

Idaz-lan au idazten dogun artean, euskaldunak Araudia aztertzen diardue, baiña ez dakit Araudia aztertukeran gure Erriaren kondairea kontuan izango daben. Baietz uste dot. Ala zer izan garan aztu ete dogu euskaldunok?

Ori kontuan dala, arin bururatzen jaku, Araudi onek emoten dauskuna eta asko geiago beti izan dala geurea eta kendu-eziñekoa, baiña zerbait lortzen ba'dogu, aurrera. Guztiz egokia da ba, geigarri-araua edo «disposición adicional»: Araudi au onartzeak ez dau esan gura ortik gorako eskubideak itzi egiten doguzala

* * *

Asteko, Araudiak España Laterriaren barruan gagozela diño. Eta gaurkoz orrelan da. Baiña zuzentasunez? Orrelan izan bear dau? Zer diñosku aztu bear ez dogun kondaireak? Noztik eta zergaitik gagoz España-barruan?

Araudiak Euskalerrriaren batasuna adiazoten dau. Orretan kondairara begiratu ezkerro, aurrerapen aundi bat dogu, euskaldunak iñoz agintari bakar baten menpean ez gara egon eta. Santxo III'aren aldian eta ez geu bakarrik. Emen erri-batasuna obeto agertzen da, baiña, zori txarrez Naparroa'ri buruz zalantza mingarria eta Ipar-Euskalerrriaren arazoa urrin geratzen dala.

* * *

Or daukagu oraintsu sorturiko ikurriña eta eskualdeen ikurriñak zarragoak.

Or sartzen dauskue euskerearen arazoa, erdereagaz nastean. Eta arazo au kondairan ikusi ezkerro, zelako atzerakadak antxiña ta oraintsu! Zelako jazarpenak lentxuago eta azken urteetan!

Nortzuk euskalerrriko diran eta noraiño erritar Euskalerritik kanpo bizi diranak. Euskalerrri-barruan izan arren beste erri batzun menpean dagozan lurraldeak be gogoratzen dira (Trebiño esaterako) eta egoki danez zelan oneik Euskalerrira sartu be azterzen da.

* * *

Zenbat eta zenbat erri-eskubide aitutzen diran, entzunaz beintzat euskaldunak poztutekoak. Gero ikusi bear zelan betetzen diran: Lur-zatitzea, erri-agintaritzak, legeak, epailariak, erri-ondasunak, lugintza, arraintza, urak, erri-laguntza, billaketa, jakintza, eder-lagintza, liburutegiak, langille-taldeak aurrerapenaren billaketa, sal-erosketa, langitza, urigintza, eroaletza, bidegintza, jokogintza, turismoa, ikuskaiak, dirutza, indargintza, zigorrak, langille-arazoak, jabetza-agiriak, kaiak, egazkin-kaiak, irakaskintza, osagilletza ta erri-babesak, barri-bideak...

Olako gai bakoitzak, edozeiñek, gure kondairari begira, idaz-lan luze bat edo obeto esateko liburu aundi bat idazteko beste burutasun dakarskuz. Ez dagigun aitzu gure kondaira eder eta maitagarria.

* * *

Olako gai batzuk geroko ataletan obeto zeaztuten dira, batez be ertzaiñen arazoa, beste lurralde batzukaz egin daikezan itunbenenak, epailaritzarena, ondasunena...

Lenago be izan genduan gaurkoaren antzeko pozaldi bat arako guda-egunetan orduko Erkalak ondo kostatu zan Araudia emon euskunean, baiña bizi laburra izan eban Araudi arek, eta zori txarreko ostea ekarri eban. Ez al da oraingoan olakorik jazoko!

Araudi onek, gogo onez aurrera ateraten ba'da, sekulako bizi barria errian sortzeko almena daukala esan lei eta, zalantza barik, ondoren onak laster agertuko dira.

Ez al da izango, sarritan jazoten jakun gauzea au be, geure artean burrukak sortzeko bidea.

IBILLALDIAK

Aurtengo udan, San Antón Parrokiko eliztar apal mordo bategaz, iru ibillaldi egiñak gara pizka bat solastuteko ta euskal lurral obeto arakatu ta ezagututeko:

Lenengo ibillaldia itsas-aldetik Baiona'raiño izan zan; bigarrena euskal erriko zaindari dan Aralar mendiko elizaraño, ta irugarren au ORREAGA'RA (Roncesvalles).

GAZTEIZ-LIZARRA-IRUÑA

Arabako uriburru ederra dan Gasteiz ikustaturik eta bere edesti ederra azalduta gero, lursagar loratsuz beteriko solo ta lautadak igaroaz, eldu gintzazan Naparroa'ko LIZARRARA.

Garrantzitsua uri au, egiz.

Geure begien aurrean S. Pedro eliz erromanikua, S. Migel ta Sto. Domingo eliz gotituak; Puy'ko Andra Mari, antxiñako Sinagoea, etb.

Euskal errian goragarria erri au.

Bertan, Ega erreka-ondoko plaia deritxoen inguruan, atsedan alditxo bat arturik, or goaz aurreruntz Jurramendi (Montejurra) entzutetsua ta, Iratxeko lekaretxea alde batera itzirik, eta bardin, Eunate elizea, Obanos te beste erri batzuen ingurutik zear beste atsedan pizka bat artzera Euskal erriko Urriburu dan Iruña maitagarrira.

ERRO-ALDEAN

Beti ango ta inguruetak edestia azalduten zan.

Ango abesti euskaldun, ujuju ta irintzi biziak erromesen artean! Azkenengo ekiñaldia Iruña'tik Orreagarañokoa.

ERRO INGURUKO erritxuak guztiz politik bezet be (Espinal) ta Auritze (Burgete).

An giñozezanak bide ertzetan errietako euskel izenak irakurtzeam ao batez iñoen: Nork esan dau, au ez dala Euskal Erri? Ori diñoenak edo zoroak edo txarrak dira!!

ORREAGA'N

Azkenez eldu gara Orreagara.

Eguzki argidun egun orretan bai zorragarri Orreaga!

Ango milla motako orlegia!

Ango pagadi amai-bako eder ederrak!

Bazkalduta gero Meza ederra, Andra Mariaren eliz gotiko lerdenean.

GOMUTAKIAK

Santxo indartsuaren obia etab. ikusirik arri-tuta ixil unean gengoazan, euskal erriko santutegi ta mendi sagaratuan gengoalako.

Ementxe euskaldunak Karlos aundiaren (Carlomagno), Europako erregerik indartsuanaren gudaroztea arrozkadetatik arri ta aitz zati aundiak boteaz, azpiratu eben. Auntxe il ziran ainbat buruzagi ta batez bere Karlosen maiteena zan Errolando.

Burruka ori 778'an izan zan, Andra Mariaren igokunde egunean. Bertan egin zan elizatxo bat Karlos'en aginduz. Geroago Santxo Indartsu, Naparroako erregeak etxe ori ta elizea aunditu ta edertu ebazan, 1131'an, eta Iruña'ko gotzaiñak bertan Gaisotegi eder bat egin eban. Santiagora erromes joiazan gaiso ta goseduani laguntzeko.

Bertan sortu zituan kalonjeak egunero Andra Mari Orreagako irudi ederraren inguruan otói egien illen ta bizien alde. Erdi aroko mendecetan munduko santutegi entzutetsuenekoa zan Orreaga.

Orain bere inguruetak errietatik erromes asko biltzen, dira leku bedeinkatu orretan.

BILBO'RANTZ

Gu, an egun zoragarria igaro ta gero, ostera Bilbo'runtz.

Bide guztian pozez abestika ta zantzoka, geure biriak aize garbiz beterik eta geure biotzak euskal-erriaganako maitasunez indartuta.

Uda amaitzera doa, datorren udan bear ba'da, Jauna lagun, ibillaldi barriak.

Baleiteke baita Naparroaruntz. Ara jo bear dogu antxe dagolako euskal arreba nagusiena, euskal edesti ta erti-lanik lenengo ta ederrenak antxe ditugu lako.

Biur gaitzezan euskaldunok euskal erriaren sus-trai ta biotza dan Naparroa bedeinkatura.

ORREAGA

Orreagako basterra bai gogamen-iturri euskal biotzetan sortzen poztasan zorragarri.

Ango oianen orlegi zugazti eta pagadi txarmangarria benetan an dagoan izadi.

Andra Maria aulkian zidarrez bere irudi gotiku eliz bikaiña bai begin zer ikusi.

Euskal abendak ingurun burruka gogorrakin zaindu eban askatasun bulartsu Euzkadi'n.

An ildakoen gogoak basoan egalari Naparrako basterretik itzar naiaz euskal-erri.

Euskaldunak iñoiz ere ez ziran lapurrak euren erri zaintzearren gogor ta indartsuak.

Irakaskai onuratsu Orreaga'n jazoa euskal erri maitagarri ez da iñoiz aastua.

Ibiltari gu guztiok Orreaga txokora indartzeko geure barrun euskaldun gogoa.

Orreaga'ko antzera guztiok alkarturik lortu daigun arin arin askatasun bakerik.

Utikan beti betiko banantzalle maltzurak gure dan izateren izen bako lapurrak.

Ibañetako eskilak egin bei dilin dalan Munduari esateko bizi gara bakean.

GURE IKURRAK

ZALDIA

Zaldia izan dala euskaldunon «totem», ikur, aide edo zain nagusia, entzun neban atzo; ala agertzen dala, beintzat, geure koba zuloetan ainbat marrazkietan; eta arengandik artua dogula gure «irrintzi» bereizi au bere.

Bururakizun bitxi au buruan, urtena nozu, gaur goizean, Urkiola inguruko menditara. Eta gauzok nitun buruan, dantza-dantzari:

Bai, gure ele zarretan be azaltzen jaku zaldia, eta ez gutxitan; bardin azaltzen ainbat toki-izenetan be.

Gauzok buruan eldu naz ustekabean Saibigain mendiraiño. Eta ona, zaldiak larrean. Asko ziran, ederrak ziran, bedar xea mauka-mauka murrizten ari ziran.

Areen artean sartuta, asi naz neu be larramillo batzen.

Ez ziran zaldiak ikaratu, ez eben zirkiñik bere egin.

Amalur beraren seme, aren bular jorietan edoskiten geniardun zaldigizonok; areek janari-bedarra, nik osasun-lora.

Ontan, beor bat etxun da zulo andi batean; aren ondoan larren egoan zaldia be etxun zan, azkenik: beorraren inguruan etxun zan, beorraren inguruan eta muna baten gainean.

Zain egozan biok: beorra, joandako gerratean zulo aretan eortzita-ko, geure gudarien azurrak zaintzen; eta zaldia bere beorra zaintzen, burua ernai, burua zal.

Zain eta zal!... Ortik ain zuzen etorria ete zaldiaren izena?...

«CROMLECH»

Larramilloak batu, larramilloak jaso, mendi tontorrera urreratzen noa, astiro-astiro. Eta auxe neban, bitartean, neure buruan:

Euskal gazteen odolaz bustita dago mendia; euskal gudarien azurrak beteta zuloak.

Eta nun eta zertan ibilli gara, bitartean, areen semeok? Zaldiak bakarrik zaindu dabez areen azurrak. Zaldiak bakarrik sagaratu euskal mendia.

Asmakizunok buruan eldu naz, azkenik, goiko tontorrera, eta ingurumarira begira asi:

Eta beorrek etxunda egondako zulo a andituz-andituz joan jatan, eta izugarrizko «cromlech» edo jentil baratz baten erdian galduta, ikusi neban ene burua.

Albertia, Anboto, Mugarra, Lekanda, Gorbea'en atx zorrotzak neukazan inguruan. Eta inguruko tarreetan Otxandio, Abadiño, Mañari, Dima ta Zeanuriko erritxoak... Tontoretako zuloetan, ildakoen azurrak; eta araneke utsarreetan, bizidumen abiak... Eta aran eta mendien gainetan, ortzi zabal urdiña. Jentil baratz oneek izan ei dira zaldien urrengo geure ikurrak.

LAUBURUA

Inguru begira luzaro egon ondoren, tontorreko gurutzepean ezarri naz, atsedean orde. Larranbillo artean sartutako zaborrak kentzen diardut aldi baten. Altzau gero, ta burdin orizko xafla ageri jat gurutze gerrian. Saibigain mendian ildako gudarien oroigarritzat egiña. Barria da xafla, ta lauburuz jantziak ditu lau ertzetako musturrak.

Luze, zorrotz eta latzak ditu gurutzeak bere lau alderdietako adarrak. Gizonok bertan josi, eta oiñazeen artean erailtzeko, erromatarrak asmatutariko tramankulu zitala. Makodun beso leunak ditu, alderantziz, euskal gurutzeak, eta biotz antzeko burutxo borobillaz jantziak; zurtzak eta gaisoak besarkatzeko egiñak.

Eta au izan ei zan euskaldunon irugarren ikurra.

GERNIKA

Eguna aurrera, eta asi naz mendi-beera, ene larramillo poltsa eskuan dilin-dan. Ezker aldera begiratu ontan, eta ona Gernika'ko itsaskolkoa agertu bat-batean, an urrin, gandu mee artean erdi galduta. Eta «Gernikako arbolaz» gogoratu nintzan beingoan.

Gernika, lengo Lauburu zarraren, urrengo ikurra dogu; orregaitik birrindu eben, bai, geure arerioak.

Picasso andiak gogoratu deusku ondo baiño obeto, bere sona aundiko irudian, ondamendi orren izugarrikeria.

Españiarren zezenak Gernikari erasotzen deutso, eta dana ankaiz gora botatzen dau. Euskalzaldia ageri da erdi-erdian, Gernikako arbolaren orde. Zaurituta dago zaldia, baiña bizirik; eta bere oin azpian jausita datzan, gudaria zaintzen diardu maiteki bere aurreko belauburuaz.

Nungo sorgiñak adierazo ete eutsen Picasso andiari gure zaldiaren ikurra?

Gogoeta oneek buruan, sartu naz, ontan, alboko pagadi baltzean. Emen gorde, ta emendik erasotzen ei eutsen eusko gudariak, Saibigaiñera ausartzen ziran, arerioai.

Eta ona, nun topatzen dodazan lengo zaldiak, pago makurren artean ostenduta. Abaroan dagoz, eguerdiko beroaren iges. Ez egozan lengo moduan, etxunda. Zutik egozan zaldiak, zutik, buruak zain, buruak zal.

Asiera da amaia... Aldiaren aizeak jo dau, ta Lauburuko ikurrak giltza osoa emon dau.

Aize miraritsu ori neure birietan sartu, ta sekulako irrintzi luzea egi ten dot; eta beste irrintzi luzeagoz erantzuten deuste zugazpeko zaldiak.

ESTONBA'TAR
MANUEL'EK

Foronda'ko Egazkin Zelaia

LURRA GERTATZEN

Araba'n izango dogu, Gazteiz'tik urrean, Euskalerriko garrantzitsuen izango dan egazkin zelai barria.

Araba'ko Foru-Aldundiak lurleuntze, etxekuntz, palakintz eta osterantzeko lanetan iru milla milloi lauerleko eralgiten diardu Foronda ingurumarietako landa ontan.

«A» MAILLAKOA

«OACI»k egazkin zelai leerroan «A» mailan, au da go-rengoan, kidekatu dau berau eta Araba'ko Aldundiak ba-daroaz zortziren bat urte, bertako premiñazko eginkizunen goraberetan leoiaren parte garaiena artuta.

LENAGO

Lendik be ba-ebazan Gazteiz'ek beste egazkin landa txiki bi.

Bata Lakua deritxon auzunean kokaturikoa, 1920'garren urtean or nunbait erabillia.

Gaur egun etxe-orratz eta etxe-bizitz eder ugariz gaiñezka daurkigu berau eta eun milla inguru biztanle eukiteko egi-antzean diñoskuenez.

Ondoren, 1935'garren urtean, Elorriaga izena daukan errizka-

ren alboan, Mola Gudalburua-
ren izenekoa egin zan eta gure
anai-arteko guda garratzean an-
dik urten ei ziran Gernika lar-
kaiz birrindu eben guda-egazkin
astunak.

EKIÑALDIAK

Egazkin-zelai barri onek luze-
zabaleran 630 ektare ditu guztiz
eta euretatik 415 ektare Foru-
Aldundiak eskuratu dauz.

Eginkizunak iru zatitan ba-
nanduko dira eta lenengoko eki-
ñaldirako 70 ektare bear izan
dabez.

Zati au amaitu-barri dogu
eta aurtengo azillaren 2'an asiko
dira egakaldiak, egunero zortzi
egakaldiren araberan.

NOZKO

Bere luzaerea iru milla ta
bosteun neurkiñekoa da eta pre-
miñaldietan egunero 24 ordu-
tan bearrean jarduteko prest
egongo da.

Lanak urte gitxi barru amai-
bide osoa izango dabe eta or-
duan J. L. laterriko onenatariko
bat izango da.

Beste bategaz bardintzekotan,
Bartzelona'k daukanaz idekotu
al izango da.

BIDAZTIAK

Egazkin-bidaztientzat ardu-
radunak ipiñi daben kopurua,
asiera baten, urtean milloi erdi-
koa izango da.

1985'garren urtean zelai ontako
joan-atorrietan 1.700.000 bidazti
batuko ei dira, 1990'-ean
2.300.000 eta 2.000'garrenean
4.800.000 bidezale izango dirala
uste dabe.

Ez ete da larregikeri bat
izango? Azken baten usteak us-
tel urtengo ete dau?

Emen be erdal esaereak di-
ñoan lez esan bearrean gagoz:
«Ikusteko, bizi bearko».

EGAZKIÑAK

Asieratik, gaiñera, egazkin-
mota guztiak artzeko gai izango
dogu.

Adibidez, bertan kokatu al
izango dira «DC 8», «DC 10»,
«Boeing 747», «Yumbo» ta «Con-
corde» egazkin garai ta ospe-
tsuenak.

Lenengo zati onen zabalera
45 neurkiñekoa izango da eta
ertzak alde bakoitzetik beste 7 1/2
neurkiñekoak.

GELTOKIAK

Agiriko geltoki bat be izan-
go dabe egazkin oneik, 90 x 157
neurkiñekoa. Asieran iru DC 9
motako egazkin sartzeko aiñakoa.

1980'garren urtearen azkene-
rako beste agiriko geltoki bat,
lenengoa baiño iru bider aun-
diagoa, gertu izango da eta ba-
tetik sei zazpiren bat egazkin
DC 10 kidekoak bertan kokatu
al izango dira eta bestetik beste
ainbeste DC 9 ta Boeing («Yum-
bo») tankerakoak.

BIGARREN ZATIA

Egazkin zelaiaren bigarren
zatiaren luzeerea askoz txikia-
goa da.

Bere zeregin bakarra, egaz-
kiñen sart-urteeretan, lenengoa
egazkiñez gaiñezko dagoanean,
berari laguntzea izango da.

Au, batez be, egazkiñen bee-
ratzeetan.

Irugarrena lenengoaren antz-
antzekoa eta batetik bestera bi-
tarte km ta erdikoa izango da.

TOKI ONEAN

Ikusten dogunez, oraindiño
zati baten itxaron bearra dau-
kagu.

Baiña gerokoan, zalantza ba-
rik, Gazteiz'ko au Euzkadi'ko
egazkin-zelaiarik onena izango da
eta bidezabal barriak bitarteko,
Donosti, Bilbo ta Iruña'tik be
oso urrean aurkituko da.

ARREGI'tar Josu'k

Sangines Larrea Gudalburua

Joan dan dagonil goiz baten egin eban euri zaparradaz ozgirotuta, arratsalde baten, Jadalbere nire auzoko lagun on batek bere berebillean eroan nindun bion erria dan Orozko'ra.

Emen dago gure adiskide aundi bat eta beragaz al-karrizketa ta ikustaldi luze bat egiteko bear-izana geunkan.

Orozko araneke edesti, ipuin eta Kondaira gauza guztiak dakiz adiskide onek, eta bere agotik entzun gura genduzan oraingo barri batzuk.

Bizkaia'n inor ba-dago kondairalaririk, or daukagu Muñoz, benetan kondaira-zale lilluratua. Bere kondaira-jakintza berarizkoa, Orozko araneke jeoloji, jeografi, ipuin, politika ta gizarte zeaztasunez beterikoa da. Ango gauzak jakiteko, Goio kontalari jakintsuagana eldu daitela gura dauana.

Goio'ren osabea be, osagille ospetsua zan eta Bizkai'ko Aldundiaren argiketa eta bertan egindako osasun-lanagaitik atxurdiñezko irudi-erdia egin eutsoen bere etxe-aurrean.

Goio lobe, bere kondaira-jakintza dala ta, osabearen beste entzutetsua izatera elduko da.

* * *

Garagarrillaren azken-egunetan, ustebako albiste bat agertu zan izparringietan, irratietan eta beste barribideetan: Sangines eta Larrea'tar Jose Antonio jesuitea eta komandantea, jaiotzaz Orozkoarra, gudaritaldeen buru lez sartu zala Managua'ra.

Orozko'n jasoten diran guztien barriak dakizan Goio'k, barri au jakin barik eukitea eziña izango zan.

Izan be, Goio'ren guztiz ezaguna da Jose Antonio. Onek meza barria esan arte, lagun eta ezagun eban eta une garai ta oroigarri aretan benetako sinistedun batek egin leiken olerki jatorra egin eutson.

* * *


Gu baiño lenago «El Correo Español» eko albistari bi joan jakozan barri-billa, baiña antza dagoanez berak ez eutsen barri larregirik emon, Sangines Larrea'ri buruz ez eutsoen eurak gura eben beste barri atera. Eta gaiñera kontuz ibilteko eta barrikeririk ez aterateko esan eutsen.

Ona emen guk atera genduan argibidea:

Muñoz'tar Goio'k esan euskun gudalburu egin ebe-naren aita Bilbo'ko ogigillea zala, baiña antza dagoanez berak ez eutsen barri larregirik emon, Sangines Larrea'ri buruz ez eutsoen eurak gura eben beste barri atera. Eta gaiñera kontuz ibilteko eta barrikeririk ez aterateko esan eutsen.

Jose Antonio jaupari, abadea da; ez da egin sekular, erritar; ez dau urten Jesus'en lagunditik, naiiz ta aldi onetan buru ta nagusi daben Aita Arrupe'k lagundia izteko onua emon.

Sinistedun aundia da bera eta Muñoz'tar Goio bere lagunari idatzi dautson txartel baten agiri danez «goi-zero altarean egiten dodan aurkitzean, zeu be Beragaz aurkitu zaitezela eskatuko dot», diño.



Pentsau geinke ba, komandante izateko asmo ta arriskua artu ebala, goi-argiz, zuzentasunaren indarrez, Somoza'ren Gobernuak agertzen eban biotz-gogorkeriak eraginda ta suminduta.

Orixe izan zan, joan dan gizaldian Sta. Krutz abadeak artu eban bidea. Onek euskalerrriaren maitasunagaitik.

* * *

Eta Jodalbere ta biok Bilbo'ra etorri gintzazan, ba-koitxa bere etxera.

Ona emen Goio'k berak Jose Antonio'ri egin dautsan olerkia, euskeratuta:

Urrezko galburua zeure eskuetan daukazu orain,

Kalizean matsadarraren ur gozoa dabil.

Munduko misterioa ortxe dago.

Ludia adiskide on bat lez da.

Usapalak bere negarra isildu dau.

Otz sumin batek zerua zauritzen dau.

Soilki isillak zure abotsagaz ezbaietan diardu.

Jainko almenaren eskari biziaz,

pazko-bildots mindua

zure odol eta eskuetan agertu zan.

Jokabide zoro-antzeko onek maitasun neurribakoa

eta etorkizuna bidaritzat askatu ebazan.

Eta zure eskuetan Jesus maitea jaiio zan.

LETONA'k

Martin Azpilkueta

"DOCTOR NABARRUS"

MAIXU

Aita Vitoria'gaz bat, irakasle izan zan Salamanka'ko Unibertsitatean.

1528 garrenean, ikastalditxo bat izan zan bertoko areto nagusian. Españaiko errege Karlos I egoan maiburu; eta ikastetxe nagusiko maixu ospetsuenak artu eben esku.

Euron artean egoan Azpilkueta eta auxe zan an erabillen arazoa: Nun datza eta mundiknorakoa da erregeren agintaritzatza?

Eta ona, Azpilkueta'k emondako eretxia: ez da Erreiñua erregerena, erriarena baiño; ez datza agintaritzatza erregeren eskuetan, erriaren eskuetan baiño; eta ezin dautso onek erriaren eskubideari ukorik egin.

Aren aurka altzau ziran Salamanka'ko maixuak; baiña ta baiña ibilli jakozan luzaro; naparrak baiña areen korapilloak askatu, ta berak irabazi eban auzia.

Amalau urtetan egon zan Salamanka'n irakasle; eta Portugal'eko Coimbra'ra joan zan urren, ango Unibertsitatearen irakasle, bertoko erregaren premiazko eskariari erantzunez.

ONULARI

Portugaleko maixurik andiena izan zan. An egon zan amazapi urtetan bertako errege ta gotzaien onulari, eta beartsuen laguntzaille, ta bere mixiolari loiba biren aita-ordeko.

Aita Juan Azpilkueta zan bata; aita Antxieta'gaz bat Brasil'eko mixiolari andia izana. Aita Xabier zan bestea, Lisboa'n itxasoratu ziran biok; Ameriketara bat eta Asiarra bestea, gure Azpilkuetak bizkorturik.

Portugal'etik itzuli, ta Salamankara biurtu zan, barriro. Eta Portugal'en antzeko eginkizunai lotu zan

emen be eta Españaiko errege, erregegai, gotzain eta giza ospetsuen onulari zintzo ta zuurra izan zan.

KARRANTZA

Orreek orrela, Toledo'ko gongotzain Karrantza'ren auzia sortu zan.

Bizkaitarra jatorriz, eta sortzez naparra, oso gizon argi, apal eta jainkozale zan Karrantza.

Idazle trebe izlari ospetsu, Trento'ko Batzar nagusian esku artu, ta mundu osoko maixuen artean nabarmendu zan.

Orreek, guzti orreek ziralata, laster egin eben Toledo'ko gongotzain, España ta Ameriketako gotzain guztien buru.

Zintzo, zuzen ta zorrotz jokatu eban Karrantzak'k bere zeregin guztietan.

Ezin ori ondo eroan, inguruetan sortu jakozan, ainbat arerioak, eta Inkisizioara salatu eben.

Gure Azpilkueta aukeratu eban Karrantza'k bere aldezlari lez.

Ondo baiño obeto aldeztu eban onek bere ereritar laguna, eta aren arrubakotasuna danen aurrean azaldu.

Alperrik! Ugari ta ospetsuak ziran arerioak, eta izaugarria zan euren eziñikusi ta amorroa; eta giltzazpean euki eben, milla apuko ta atxaki.

ERROMA'N

Erromara jo eban, orduan, Azpilkuetak.

Ez zan au errege ta inkisizioko gizonen atsegin izan; eta kosta jaken Karrantza ta Azpilkueta'ri Erromaraño eltzea.

Españaiko adiskide asko galdu ba'zitian Azpilkuetak, adixkide ugari ta andiagoak egin ebazan Erroman.

Iru Aita Santu ezagutu ebazan Erroman, an egin ebazan ogei urte luzetan; eta oso adiskide izan ebazan irurok.

Pio V'garrenak sarri deitzen eban beragaz bazkaltzera; eta bide batez Elizako arazoaz jardutera.

Gregorio XIII-garrena bere etxera etorri jakon, bein, arazo garrantzitsu bat aregaz aztertzeratza. Eta ordu bi egon zan beragaz. Ez ei zan, ordura arte, beste olangorik inoz be gertatu.

DEDUZKO GIZONA

Mundu guztiko gizon jakintsuenak batu oi ziran Erroman, bertoko eta Eliza osoko arazo ta auziaz jarduteko, eta oztopo larririk sortzen ba'oyaken olangoetan, gure Azpilkueta'rengana jotzen eben beti, eta aren eretxira etorten ziran danak.

Orreek orrela, kardinal egin izan nai eban Pio V'garrenak. Españaiko errege ta aren beste arerioak ori entzun, eta sekulako zaratea atera eben, esanaz:

«Orain kardinal, eta gero aita santu!... Ori ez, gero!... Naparra da ori... España-ko errege indarra lege daukola Nafarroa bere menpean, esan dau orrek!...»

Azpilkuetak aurrea artu eutsen baiña, esanaz: «Ez jat ori atsegin... Ez da ori nire eginkizuna... Otoitza ta ikastea dagokit niri. Eta orretan jarraituko dot beti». Eta ezetz esan eutson Aita Santuari.

Otoitz eta jakintza andiko gizona zan, bai. Ogeitazortzi liburu argitaratu ebazan, zein baiño zein ederragoak.

Santu-otsean il zan, 94 urtekoa. Eta aren illeta ospetsuaren ondoren, bertoratu ziran eliztar ugariak, aren soñeko santuak zatitan ebagi bai, ta erlikitzat jaso ta eroan ebezen.

URKIOLA'k

Ispillua

Begiratu zaitetz aurreko ispillu ortan
zuk egunoro dirakurzun izparringian:
eriotzak, lapurretak, auts-errea inguruetan...
Bai, zenbat ondamendi ezezkor agirian!

Leiar zikiña, lausoa, giza izatearen
eralguntza gaiztoak bizi gaitun eguna;
orrialdez zear azaltzen jakun munduaren
ain ikusmira negargarrizko oiartzuna.

Atsegin gitxitxu daurkigu irakurtean,
ikusirik ainbesterañoko miseria;
lerroz lerro ezbearra ezbearraren gaiñean,
etengabeko negar-malkodun lazkeria.

Egitura mingarri ontan bizi gara bai
nabarmenkiro, munduak daroan abiadan,
ezin-biziz bizi gara, illunduraz, ezbai,
gogorkeri ta eromenezko dantzaketan.

Orrialde itun, kaxkarrak, odol ixuriaren
zauriz ta, bide esituetako arantzapez;
gertagai garratzak, gizatasunik ezaren
ondoriotasunez nagusitu dan gau baltzez...

Burniki ugari dogu; ordea, garirik ez.
Ta, saltzen dira kontzientzirañoko guztiak.
Ez da banatzen ez ogirik zuzentasunez
ondatuz bizitz iturri ta emai garbiak.

Lerro batzuetan abesten dautse itxasoari
aizeraturik itxaropenezko oialak;
udan azaltzen diran ingumatxu apalak
lez, bizi-poz atsegin bat emonaz biotzari.

Eguzkizko argigune pozgarri, laburrak,
laiñoz beteriko egun goibel, illunean;
maitezko agerkera, eder-aldi apurrak
dira, etsipenezko egoera garratzean.

MUNIATEGI-TAR SABIN

EDOZEIÑENTZAKO

Garbitu agoa lagun. Ez ibilli garratzik
biraoka, asarre... (goikoari ta bekoari)
bazterrak bizi aiñenduz, gaiztoturik,
iraiñik aundiena egiñik zeure buruari.

Zeure ametsak loratu ezbaziran onik
abestu bai, zeure lagun ta maitasunari,
ta, ai!, ez ba'dozu maitasunik ez lagunik
ene seme!... abestu bada zeure biziari.

Atxiloturik aurkitzen ba'zara, oiñazez,
abestu samiña, negarra, zeure Gau Baltza
ta, orrela dakuskezu gero, atsegiñez
zelan argitzen dan zure inguru illuna,
zelan alaitzen ta zutuntzen zure biotza,
indar-barrituz zure gogo ta maitasuna.

MUNIATEGI-TAR SABIN

JOKIN ZAITEGI (G. B.)

Ostera be illeta-miñez!

Zaitegi jauna illa dogu.

Ta berezkoa da euskal idazle ta euskaldunontzat, biotz-miña.

Bat gitxiago euskaldun jator artean.

Egiazko samiña agertu dabe Euskalerriko agerkaririk geienak, joan jakunak egiñiko lan etenbakoa aitatu ta goretiaz.

EUSKALTZALE

A ta ni aspalditik giñan adiskide min.

Ni baiño iru urte zaarrago bera; besteak beste, Aitzol zanak sortu ta zuzentzen eban «Yakintza» (1933-36) bi-illerokoan biok idazten gendun.

Eta olerkitan, ain zuzen be, garai aretako—Lizardi, Orixe, Jautarkol, Lauaxeta, Loramendi, Gaztelu, Erkiaga, Tapia-Perurena, Muniategi—giroari jarraituz eta euskal ederkeran bide barriak aurkitzera bultz-eragiten euskun Aitzol zanaren esanetara makurtuz.

Gure gora-naiak laster ixildu-bearra izan eban, dakigunez, ernemin bizia; garantzen eta loratzen egoala nunbait.

Eriotzak, espetxeak, erbesteratzeak jasan bear izan genduzan, azken urteotakoak baiño gogor-garratzagoak, nik uste.

Besteak beste, Aitzol ta Lauaxeta tiroz illak izan ziran, ni iru urtean giltzape egona, Orixe, Gaztelu ta Zaitegi erbesteratuak.

Gaztetatik lanari lotuak ezin, baiña, berezko lerari errez uko egin.

Euskal arloan batez be.

Orixe'k, esaterako, gogo beroz ekin eutson, erbestean bizita be, euskal lanari.

Nik, naiz-ta norbere burua goratzea on-ona ez izan, Dueso'n ainbat olerki ondu nituan, Nanklares de la Oka'n osotu neban, erdi-gaixorik nengoala, Kerexeta ta biok gero argitara genduan «Eguneroko Meza» bizkaieraz, eta Karmona'n, izkuntzak ikasi bitartean, J. Swift'en «Gulliver'en Joan-etorriak» eta S. Pellico'ren «Neure espetxe-gunak», euskeraz jarri nituan.

Jokin Zaitegi, bere aldetik, ez egoan geldi.

Eliz-ikasketak Durango'n, Loiola'n, Oña'n eta Belgika'ko Marneffe'n osotu ta apaiztu ondoren, urte mordoa erre eban Venezuela'n arima-zerbitzuan.

Olerki-pillotxo dau ango komentuetan jesuita egoala osotuak.

Ez, ez da errez barruan bizi daroagunari uko egitea: Zaitegi, naiz-ta atzerrian eta beste asko lanetan murgildua bizi, nun-nai ta noiznai agertu jakun euskaltzale porrokatua.

«EUSKO-GOGO»

1950'an sortu eban aldizkari eder au, El Salvador'en eta Guatemala'n.

An zuzentzen eban bere Ikastola Nagusia, «Landibar», eta bertan irakasle zala, ba-zan oraindik nor aldizkaria be aurrera aterateko.

Euskal idazlerik onenak, berak olan naita, laguntasuna emon eutsoen, eta ederra, idaz-lanez beintzat.

Eta orrela, aldizkari au gertatu zan, oraiñarte euskereak izan dauan literaturazko bikaiñena.

Bere diruz eroian geien bat.

Naikoa ondo eroan be. Sei urtez orrelaxe jokatuturik, 1955'aren azkenerantza, euskeraren alde oindiño lan erimeagoa egin naita, Guatemala itxi ta Lapurdi'ra etorri jakun.

Ez eban, euskal lana izteko asmorik. Euzkadi'n bertan lan egin gura izan eban.

Etxe aldaketa asmoz ebillena, onela diñosku: «Euzko-Gogoa'k gizaldi berri bat sortu du euskeraren inguruan, eta gizaldi orri euskotar eta euskaldun guziok nora-ezean eutsi bear diogu, gizaldi orren auzi ta asmoak zoritu ditezeño, burutu ditezeño».

Orretarako eusko lurrean lan egin bear.

Zergaitik?

Auzi orren askabidea euskera dalako.

Berak onela: «Euzko-Gogoa'ko gizaldiaren auzia Euskalerrria dugu, eta auzi orren askabidea Euskera, EUSKERA SOILIK. Oraiñarteko gure gizaldiek ez dute guk bezela Euskalerrriko auzia azaldu. Auzi ori, esan bear, aiek ere beren barne-muiñetan sentitu zuten, auzi orren askabidea ordea, ez zuten guk bezela izkeraren gaiñean ezarri, euskeraren gain, alegia. Ez dago besterik: gure auzia euskerak askatuko du, ez beste ezerk».

Adi ta ausnar daiguzan itzok, abertzale garea la diñogun guztiok!

Biarritze'n ekin eutson, oindiño beste lau urtetan, «Euzko-Gogoa»-ren argia dizdiratzeari.

Amerikar lurraldeetatik ekarren asmoa bete gurata, euskaldunen arte-an laguntasun-billa ta agintarien ateetan baimen-eske ibilli jakun zati baten, mugaz emendik be euskal auzia askatu nairik.

Ez eban baimenik lortu, ezta euskaldunak laguntza aundirik eskiñi be.

Beraz, Lapurdi'n kokatu zan, lur girotsuagoan.

Andik bialtzen euskuzan «Euzko-Gogoa» ale marduletan. Antxe eregi nai izan eban euskal idazlarien etxe bat be.

«Hartan —diñosku P. Lafitte'k— elgarrekin biziko ziren eta lanean ariko euskaldun izkiriart moltxo bat, sehi berekin, liburutegi eder berarekin eta abar. Bainan alferretan bilatu zituen hartarako kideak».

Ortaz, Euskalerriratzean ekarri zituen diruak gitxituz joakozan, eta baita laguntasun urritan

bere burua ikusiaz gogaitu be, ta azkenez, Guatemala'ra biurtu zan barriro, ango parroki baten zerbitzuko jarririk.

Bigarrenez etorri zanean, Arrasate'n geratu zan, bere ama zaarraren ondoan.

Au il jakonean, osasunez ondo ez ebillela-ta, Oñati'ko «Residencia»-ra aldatu ta antxe bizi izan da azkenerarte.

Joandako abuztuaren lenengoetan lez, biotzetik batez be txarto aurkitzen zalako, Donosti'ra eroan eben, eta an emon eban azken-arnasa, 1979-8-17'an.

Biaramonean, arratsaldeko 7'etan, eortz-illeta bikaiña ospatu zan Arrasate'ko San Juan eleizan, konta-ezin ala adiskide, euskal idazle ta olerkari bertan zirala.

Altaran giñan gu be, ogetaz apaiz ta lekaideok, Argai gotzain jauna buru, aren arima alde Jainkoari eskiñi geuntson alkar-mezatan.

Eliz-gizon zintzoaren gorpuari ortu santura lagundu ostein, ainbat lagun, adiskide miñi eskua estutu geuntson biotzez.

Goian bego gure lankide jatorra, ta lagun be-kigu bertatik guztioi euskal arloan.

IDAZLE

Arrasate'n jaioa zan Zaitegi, 1906-7-26'an.

Umetatik ekian euskeraz.

Jesuita karrera ikasi eban Durango, Loiola, Oña'n eta Belgika'ko Marneffe'n; ondoren 1935'an apaiztu eben.

Karrera bitartean, leen eta orain, arrisku aundi samarra izan oi da su-bazterrean, gurasoen aotik ikasia, aiztuteko. Asko ta askori beintzat olan jazo jake.

Zaitegi'k, berekiko, onela: «1924'garren urte-tan 'junior' bezala latin, eladera ta elertiak ikasten ari ginen euskaldunok, euskaltzale gertatu ginen: ixileko eragile neu izan nintzen. Kaputxino ospatu batek idatzitako liburuxka bat irakurri genuen euskaldunei buruz; eta gure buruetaz iabe egin zen euskal-egia. Leenik Ibiñagabeitia-tar Andima-k eta biok irakurri genuen... Irakurri-ala, auxe esan nion gure Andima zenari: gu geu euskaldun gara, izan ere, ta euskera ikasi egin bear dugu. Egia esateko, ezkenuen euskera aazturik erabat, galduxe baizik. Liburuxka ura izan ezik, eztakit euskaldun bezala irauingo ote genukeen».

Liburu batek, lagun batek, zelako mesedea egin oi dauskun sarri!

Orduantxe eratu eban talde trinko bat euskal zelaian lan egiteko suak jotakoen artean: Andima, Lauaxeta, Iñaki Goenaga, P. Muxika, Larrañaga, Argarate, Zubiaga, ta abar, aldiaren joanez ainbat liburu ta lan eder osotu dauskuezanak. Indarrak indarra ekarten.

Besteak beste, ona Zaitegi'ren liburu batzuk: 1) *Kizkiña* (RIEV, 1933, 60'or); 2) *Ebangeline* (Gautemala, 1945), H. W. Longfellow'ena, euskeraz; 3) *Goldaketan* (Mexiko, 1946), olerki-bilduma; 4) *Sopokel'en Antzerkiak, I* (Mexiko, 1946); 5) *Abere-indarra* (Benavente-Zaitegi-Andima), 1950' gneko «Euzko-Gogoa»-n; 6) *Bidalien Egiñak* (Zarautz, 1955); 7) *Sopokel'en Antzerkiak, II* (Baiona, 1958); 8) *Adizki berenkiak Olabideren Itun Berrian* (Euzko-Gogoa'n, 1958); 9) *Berriz ere goldaketan* (Gautemala, 1962), olerki-bilduma; 10) *Platon'eneko Atarian* (Donosti, 1962); 11) *Medeia* (Euzko Gogoa, 1963); 12) *Platon II, Gorgia* (Donosti, 1977); 13) *Platon III, Eutifron eta Sokrate-ren Apologia* (Donosti, 1978).

Platon'i buruzko iru liburuok, griegotik euskerara biurtuta, Euskal Ikastola Nagusirako gura zituan, ortarako liburu-sail galant bat osoturik.

Nik, igazko Gabonetan eta aurtengo maiatzean, Lemoa'n bizi dan Demetrio Ayerbe'rekin, egin neutson ikustaldian, Platon itzuli ta itzuli ikusi neban, beiñola Loiola'n euskal idazle arein artean artutako asmoa, au da, gerkar eta latindar klasi-kuak euskeraz jartekoa, aurrera eroan naita.

Langille amorratua zanik, ba, ezin geinke ukatu.

Onezaz gaiñera, izan be, eundaka artikululu ditu Bilbao'ko «Jesus'en Biotzaren Deya»-n, «Yakintza»-n, «Euzko-Gogoa»-n eta abar... prosaz eta bertsz egiñak.

Asiera-asieratik, zentzun betez taiuatua zan «Euzko-Gogoa»; euskera eder, garbi ta jaseko-an beti.

Idazleai begira, «elite» gain-gaiñekoa eukan bere mendean.

OLERKARI

Geroago, idazle ona izango danak, geienez beiñik-bein, olerki edo itz-neurtuetan egin oi ditu bere lenengo saioak, len-intziriak esan geinke.

Onelantxe Zaitegi'k be.

«Jesus'en Biotzaren Deya»-n asi zan idazten, ikasle zala, ta koplatan asi be.

Gerokoan olerki eder asko biribildu euskuzan, eta argitaratu, «Yakintza»-n, «Euzko-Gogoa»-n eta aitatu ditugun olerki-txorta bietan.

Irakurriak zitun klasikuak, naiz gerkarak eta naiz latiñak, baita asko euskerara itzuliak be.

Erroz ekian, beraz, antxiñakoen ederkera.

Eta irakurte ortatik, jakiña, berari be zerbait erantzi.

Zaitegi'ren neurtitz-lan asko klasiku-bidez osotua dagoz. Pentsamentuz bete-bete, biotz-ondo sentikor, euskera txukun bizitan.

(15n. orrialdera)

Txango Onbidegarria

Txango edo exkursidorik geienak izaten dira atsegingarriak, baida, ez beti ongarriak, ez soñerako, ez norberaren adimenarako. Gauza jakin-garririk ez ikus-garririk ez dala ikustatu.

Orrixegaitik txangoak antolatutzen dituzanak ongi aditu bearrian dira, txangua gertatu baiño lenago onbidegarria dan ala ez urren egingo dana.

* * *

Gure erriko Ganguren mendigoizale taldeak, urte guztirako egitarau gerturik daukaz urtean lenengotarik baiña, noiz edo bein egitarau ortatik azke daben igande batzuetan txango luzeagoren bat antolatzen dabe-ta, orretariko bitan izan gera illa baten barruan; bata Naparra'ko Orreaga'ra eta beste baita Naparra'ko Baztan aldetik Ipar-aldeko Euzkadi'ra.

Azkenengo au aipatuko dogu, bada. Onbidegarria iduritu yakun.

* * *

Garilla edo Uztailla onen lenengo igandea izan zan, eta goizeko zazpi'retan urten gintzazan Galdakano'tik notin-berebil andi bitan larogei ta amarren bat gizon eta emakume ta gaztetxu mordo bat, ez danak mendigoizaleak baiña, bai Ganguren'go bazkideak, Beobia'ra berebil-bide zabaletik eta, urren Naparroa'rako bitxabaletik Bera'ko Bida-soa'ra.

Erri garbi polit orretan geldiuinetxu bat egiñez abopeko bat egiteko.

Abopekoa jaten zan bitartean jakin-arazo jaken txangolariei, zelan erri orretan bizi izan zan Baroja'tar Pio idazle ospetsu euzkotarra, nai-ta guk dakigunez iñoiz euzkeraz idatzi ez, eta Euzkadi gaitik bere, ez nai-ta erraz ikusiten jakon bere idazkeran euzkotarra zala.

* * *

Urren Santesteban eta Elizondo erri apaiñetatik astiro igaroaz, txangolariek ikusi dagiezan, Baztan ortako Amayur edo Maya erri txiki baiña apaiñera eldu gintzazan, erri orren Sorkaldera aurkitzen dan Gorramendi edo Gorramendi, bada era bietara idatzita ikusiten dogu, nai-ta gure ustez Gorramendi izan egokien.

Guretaiko mordo aundi batek bertatik gora mendi erpin orren gallurrera igon eban, beste asko erri-inguruan geratu gintzazan

bitartean, Amayur'ko gaztelu ospetsua egon zan muñoa ikusi, bertan -il ziran napartar abertzaleen arimen onez Aita-gure edo Gure-aita esanaz.

* * *

Maya'ko erria oso garbi ta polita da.

Etxe ederrak, Baztan alderdi guztian ikusiten diran lakoak, txigu edo balkoi luzedunak eta etxe guztiak euren armarrria erraz ikusten dala.

Amayurtarrak edo mayatarrak guretzat dabenik armarririk bikaiñena euren izkuntza da, EUSKERA, bada oraindik, zorionez, gazte ta zar danak euzkeraz itz egiten dabe, baztandar euzkera txukunean, eta ori da nor-tasunik geien emoten dautsena.

* * *

Mendira juandakoak jatsiaz batera urten gintzazan bertatik eta, Otsondo'ko aldapa igon da besteko aldera jatsiaz, menditarte ikusgarriak geure ikusmenez, bistaz; arakatutzen genduzan bitartean, eldu giñan Dantxarene'ko muga madarikatura, beren inguruan bazkaldu ondoren — ordu ta erdian — ipar-aldeko Euzkadi'ra igaroteko.

* * *

Berebil aundi orreitan gintzazan guztiok ez ziran abertzaleak, baiña, ori-ta guzti bere ezin gintzazan ezer esan barik gilditu eta, azaldu geuntsen gure eretxi laburrean zer esan naeban euzkotarrantzat euzko-anaiok erdibitu ta bananduten gaituzan Frantzi ta Espaiñ'k ipiñitako muga madarikatu orrek.

Ortik eta Sara'ko erri apaiñean geldiuinetxu bat egiñaz Donibane Loitzun'era zuzendu gintzazan, bertan ordu bi inguru igaroaz -geienok Euzkadi'ko -lenengo Lendakari izan zan Agirre'tar Joseba Andoni'ren eta Errezola'tar Joseba'ren illobiak ikustatu, eurretan Gure-aita bat edo beste esanaz, bada, bein uri ortan aurkitu ezketiño, ezin leitekez euzkotar onik Agirre'ren ildegia ikustatu barrik geratu, iñoiz bere ordaindu ezin dautso-gun zorra dogulako berakin.

Beste gauza ongarriren gaiñetik bera, Agirre'tar Joseba Andoni izan zalako ludi osoaren aurrean garbi azaldu ebana euzkotarrok nortzuk geran, geure-geuria dan zer eskatzen dogun, AZKATASUN OSOA euzpotarrok orretarako jayoak geralako.

Donibane'tik zuzen etxeratu gintzazan Itziar inguruan geldi-une txiki bat egin ondoren, danak poz-pez zerbait onbidegarri ikusi dogula-ta eta, beste baten Euzkadi'ko beste alderdi batera, zer ikusi ta zer ikasi dagon alderdi batera joateko asmoz.

ALTUNA'TAR JOSU'K

MARKINA

UMEAK MINTZO

Gure erriko Batzokiaren bir-zabaltzea zalata (79-VII-1), erriko umetxoen idaz-leiaketa bat antolatu zan, beste gauza askoren artean.

Jakingarria da guztiontzat gure txikitxoak nondik nora dabiltzan jakitea, euren buru-biotzetan zer daren ulertzen alegintzea.

Benetan poztu giñan euron idaz-lantxuak irakurri ta aztertzean.

Gu nagusiok geure bidetik goaz, sarritan txikitxuak be geure jarrai datorzelakoan.

Baiña gazteen eta umeen mundua, mundu berezia da, beti kontuan euki bear dogun mundua.

Errazoia ba'dogu ta zentzunez jokutzen ba'dakigu, gazte ta umeen errazoizko bide ta jokerak onartuz eta errespetatuz, ez da euron eta gure artean eten sakonik sortuko.

Pozez eta itxaropenez beterik begiratu al izango dogu gerorantza.

Gaurkotasunez gaiñezka doguzan gai bi ipiñi jakezan leiaketa onetan gure umetxoai: *Abertzale-tasuna* bata, ta *Umeen eskubideak*, bestea. Lenengoa nausitxoentzat, eta txikiagoentzat bestea.

Gaiak bapatean ezarritakoak ziran, aurretiaz ezer pentsatu ta gertatzeko erarik emon gabe.

Gaia 15 miñutu barruan azaldu ta biribildu bear eban.

Beraz, zuzen-zuzenean, bor-borka daben lapikotxotik gaiñez egindako lurrun bizia.

Ona emen lenengo sariak irabazitako lau idaz-lantxo:

ABERTZALE BATEN POZAK ETA NAIGABEAK

Euskalerrian beti egon dira abertzaleak: abere aundiekin borrokan egiten ebenean; erromatarrek, godoak, judutarrek, musulmanak gure lurretik uxatzen ebenezan; Zumalakarregi'rekin liberalen kontra borrokan egin ebenean; eta batez ere Arana Goiri'tar Sabin'en irakatsiak ikasita gero.

Abertzaleak ez dabe nai gure dirurik, bakarrrik gura dabe gure Erriaren askatasuna.

Abertzaleak negar asko egin dabe, espetxeetan egon dira, asko il egin dabez eta beste batzuk Euskalerritik urten bearra euki dabe.

Danak gauza bategaitik borrokan egin dabe; gauza ori oraindiño ez dogu lortu, eta orregaitik gaurregun be gogor dabiz abertzaleak. Batzuk armakin, beste batzuk geure eskubideak lege-bidez eskatzen.

Iñok ez dau gura beste erri baten menpean egon. Baiña beti daukagu inguruan erriren bat guztia beretzat nai dauana. Menperatzaillea Espaiña da eta menperatuak geu gara.

Abertzale batentzako lenengoa Aberria da, eta Aberriaren alde gogor egin bear dau, naizta arerioa aundiagoa izan. Abertzaleak beti pentsatu bear dau nai dauana egunen baten lortuki dauala, bestela ez dauka zertan borrokan ibilli.

Abertzaleak oraindiño ez ditue euki gura dituen poztasun guztiak, oraindiño gauza asko falta jakuz; baiña ori ezin da lortu pegatina bat ipiñita, ezta edozein partidutako mitin bat entzunda. Ori lortu bear da abertzale guztiak alkartuta eta lan asko eginda.

Eta gure Erria Espaiñaren eskuetatik libre ikusiko danean, danok batuta lan eginda gero, poztuko dira Euzkadi'ko abertzale guztiak.

Unamuno Felix, 14 urte

ABERTZALETASUNA

Txiki-txikitatik geurea izan dan etxea, sendia, ametsa...

Txiki-txikitatik biotza urratu, arakatu, aldatu, aunditu edo txikitu dauan itz maitagarria...

Txiki-txikitatik gure Erriaren sentipen, poz, atsekabe, nai ta nai-ezen barri eman digun itz lillurgarria...

Gutariko nork ez du sekula, errikoakaz bat-egiñik, NI ABERTZALEA NAIZ abotsa goraka jaurti?

Poza, maitasuna, alkartasuna, dena bat bera da. Denak sendi bat sortzen du, abertzaletasuna buru izanik. Dena larroxa zabal, apain, iraunkor bat da.

Ori millaka abertzaleek sortzen dute, izketa, erri, izakera ez-berdiñak izanez, baiña denek abertzaletasunaren beroak elkar ondo loturik, biotzetan su maitatsu iraunkor bat beti izanik. Erriarenganako maitasunez Kaixo!!! Kaixo lagunok!!! beti espaiñetan azalduz.

Olasolo'tar Karmentxu, 14 urte

EZIKETEA

GUK ERE ESKUBIDEAK DITUGU

Gu umeok beti izan gara geien menperatuak aundien aldetik. Eurak indarra euken eta gugaz nai ebena egiten eben.

Aurten umeen urtea da eta guretzako gauza asko egin dira: margolari-leiaketak, maratontxoak eta beste gauza asko... Baiña guk ez doguz nai orrelako gauzak bakarrik. Ulertu ta onartu gagiezala nai dogu.

Umeok nagusien eskubide bardin-bardiñak ditugula uste dot nik, ze geu gara erri baten jarraipena.

Munduan zear ume asko dagoz goserik, ikastola barik eta txarto jantzita. Au gizon batzuen diruzaleatasunagaitik da, eta aundiki izan nai dabelako. Orretarako umeak baztertu ta izkilluak eta tankeak erosten dabez. Ni ez nago asarre neure aitak emon daustanagaz, baiña tristetu egiten naz pentsatzean ainbat eta ainbat ume ilten dirala gosez egunero.

Gu umeok beti izan gara erderaz esaten dana los subordinados. Baiña naizta txikiagoak eta indar bakoak izan, ez gara aspertuko esaten: «Guk umeok be eskubideak doguz eta errespetatu egin bear dira».

Eskubide garrantzitsuenak amar dira, eta neuretzako amarretatik garrantzirik aundiena daukana auxe da: Umeak bere iritzia agertzeko askatasuna, ze batzuetan nagusiak ez dauskue itxiten guk nai doguna erosten edo guri konbeni jakuna esaten. Eurak esan bear dabe gugaitik.

Orain Markina'ko Batzokian nago eta poztu egin naz gure eskubideai buruz zer pentsatzen dodan idazteko eskubidea emon daustelako.

Juaristi Patxi, 12 urte

UMEEN ESKUBIDEAK

Guk umeok beti nausiak esaten dabena egiten dogu. Eurak esaten dabe eurak egiten dabena egin bear dogula, txikiak garalako. Zergaitik? Zergaitik ez dabez egiten eurak gure esanak?

Jaiak diranean eta gu erromerira joaten ba'gara eta piskat berandutxoago etxera etorri, etxean sartzen garanean gurasoak asiko dira:

—Zergaitik etorri zara beranduago? Biar ez zara kalera juango.

Eta eurek afari bat daukanean eta beranduago etxera etorten ba'dira, eta esaten ba'dautsazue zergaitik etorri diran ain berandu, erantzuten dabe:

—Eske afalduta gero berbetan geratu gara ta berandu egin jaku.

Eta ezta ezer gertatzen.

Beste gertaera bat: Iguel sukaldean gabiz eta ontzi bat apurtzen dogunean, or dator ama zarataka:

—Baiña zelan apurtu dozu ontzia?

—Nai barik izan da.

—Nai barik! Kendu nire paretik!

Eta joan egiten gara. Eta gero berak apurtzen dauanean, ixil-ixillik batzen dau eta iñor ez da enteratzen.

Eurak, nausiak beti nai daben lekuetara joaten dira, eta guk, ostera, beti etxe-bueltan geratu bear. Eta etxe-bueltatik euren baimen barik aldentuten ba'gara, ba-dakigu zer daukagun etxeratzen garanean: bronka eder bat!

Anitua, Ana Isabel, 12 urte

Azaldu dabe gure gaztetxoak euren barru-barruan dabena. Askatasun osoz itz egin dabe. Ba-dakigu, ba, gitxi gora-bera, nundik nora dabilzan gure txikiak. Orren aurrean zer diñogu nagusiok?

BATZOKIKO LEIAKETA-ANTOLATZAILLEAK

Ibaizabal Barrena eta Gaurko Industriagintza

Bilbo ingurua eta Ibaizabal barren guztia, Bizkaiko lurraldearen aurrerakuntzan, zutarri eta zimendu izan dirala esan daiteke.

Eta Bilboren indar au aspaldikoa izan arren, XIX. mendearen erdialdetik onantzakoa dogu batez ere.

Abiada orrextetan jarraitu dau Ibaizabal barren onek gaur bertora arte: Biztanlez, lanbidez, zerbitzuz, ondasunez eta industria aldetik, Bizkai osoko 80 % daukagu ementxe pillotuta, batez beste.

* * *

Bilbo inguru onen azkuntzan, iru ardatz nagusi, iru eragille egon dira: burdiña meatzak, Bilboko portua eregitzea eta industriagintzarako jokera: siderurgia, ontzigintza eta kapitalaren moltzoketa erreten nagusiak izanik, Bilboko bankuetxe nagusien gerizpean.

Naiz eta euskalduntasunean makalen eta erdaldunduen dagoan eskualdea Bizkaian berau dogun, bai Bizkaiari eta Euskalerrri osoari ospea ta indarra emon deutson uriburua ere berau izan dogu, Bilbo eta ingurua. Orrexe gaitik otu jaku, bada, eskualde onexeri eskeintzea gaurko txostentxo au.

Arlo biri oratuko deutsegu gaurkoz, besteak urren-gorako itxiaz: Biztanlegoari eta industriagintzari.

Zeaztasunok, geienontzat, ezagunak izan arren, alako ikuspegi gane-ganeko bat eta orokorra izatea mesedegarri jaku, izan ere, ta.

* * *

BIZTANLEGOA

Ibaizabal barren orretako industri barrutia osotzen daben emeretzki erriotan, 1975.eko urte akabuan, 904.482 biztanle egozan, gaur ia milloek batetik ere urrean egonik.

Bilbo dogu buru, 431.071 biztanlegaz. Barakaldo urrengo, 118.136 biztanlegaz.

Eta gero, ba daukagu beste erri txorta bat berro-rogei-irurogei bitartean dabillena. Garrantziari jarraituz, onekek dira: Getxo, Portugalete, Santurtzi, Basauri eta Sestao.

Aurrerakada makala ez dau izan mende asieratik eta ona!

75 urteotan 505 % azi da biztanletza aldetik, 1900.eko 178.794 biztanleak bost bidarrez ugaritu dirala.

Baiña erri guztiak ez dira bardin azi: geien geien, Basauri azi da, urrengo, Santurtzi eta Barakaldo dirala.

Meagintzak eta siderurgiak erakarritako kanpotar jendeari eskerrak subertatu da aldakuntza sendo eta arrigarri au.

1900etik 1970era bitartean 400.000 etorkin inguru batu dira eskualde onetara, Gaztela aldeko jendea berariaz.

Lanbide billa urreratu da jendetzar guzti au, ze gaur bertan Ibaizabal barrena deritxon onetan, 50 lantokitik gorako lantegietan, industri saillean bakarrik, 110.000 beargin daukaguz eta.

INDUSTRIAGINTZA

Ibaizabal barreneko industri-ekintzak lan sail bi ditu: siderurgia eta kimikoa.

Zerk eragin dauan industria onen espezializatzea?

Ba, leen esan dogunez, meatokiek, portuak eta bertoko gizonen lan-almenak.

Ibaiaren ezker aldean daukagu industri moltzoketarik erraldoiena. Deustuko zubian asi eta Galdamizko barraraino, siderurgia, ontzigintza eta trans-

formazino-tallerrak alkarren atzean daukaguz, geratu barik.

Gaillen agiri jakuzanak, zertan esanik be ez, Bizkaiko Labe Garaiak: Barakaldoto eta Sestaoko instalazioekaz batera, Ansioko ibarrekoak osotzen dabe Labe Garaien sarea, guztira 5 kilometroko luzerea-daukela ibai ondoko kaian zear.

Echevarria lantegiak, Begoñan (oraintxe kentzekotan), Kastresanan eta Basaurin daukoz bere lantegiak, azkenengo onetan batzen dituela bere atalik geienak. Galtzairu fiñak eta laminazioa ditu bere langintza bereziak.

Transformazino metalikoen arloan, Babcock-Wilcox lantegian daukagu eredurik bikain eta nagusia: Galindo ibaiaren ezker aldean kokatuta daukagun lanetxe erraldoi onek ekipo-ondasunak, trenetarako gaiak, fundizinoak, forja eta batez ere galdara ta odiak egitea dau langintza nagusia.

Ontzigintzan, Ibaizabal inguruan aspaldi-aspaldiko lan-mota dan ezker, gaur amabi lantegi inguru bada dira Bilbo ta Sestao bitartean, geienak Astilleros Españoles izenpean onezkerok.

Gudu ostetxoan izan eban baiño penintsula mailan pisu txikiagoa dau ontzigintzak porportzioan gaur.

Kimika saileren indarra ez da siderometalurgia-aren neurriaren eltzen, baiña gero ta garrantzi geiago ta etorkizun ohea dauka, ostera. Axpe-Erandion eta Leioan kokaturik dagoz lantegirik aitagarrienak, Dox-Unquinesa, buru dabela.

Baiña dibersifikapen bidean beste ainbat lantegiadar ere sortu dira: Metalquímica del Nervión, Inquitex, General Química, Ferro Enamel eta abar.

Lutxanan Sefanitro, Txorierrin Dunlop Ibérica, Lamiakon FAES, eta baita Explosivos Río Tinto-k Galdakaon, Lutxanan eta Txorierrin dituan lantegi-adarrak ere aitatzeoak dira kimika sail onetan.

Baiña orain bertan, eta gerora begira, garrantzi-rik aundienero lantegia, zalantza barik, Muskizgo Petronor dogu, petrologiaiek garbitzen diarduana.

Esan daigun, bide batez, Petronor onek berebiziko eskua izan dauala Bilboko Portu Nagusia aurrera ateratean, Administrazinoagaz egin eban egiune batez bitartez: interesik aundienero ere berak eukan portu ori egiteko, gaurko uanean portuko tonelajearen 46 % petrologiaiek ornitzen dabe-ta.

Eta industri arazo oni azken ikutua emoteko, papergintzari ere aitamen txiki bat deusaguz zor, batez ere Papelera Española-k Arrigorriagan daukan lantegi-gaitik. Elektriika sailak ere ba-dau bere leku apartekoa Ibaizabal barrena. General Eléctrica Española dogu, Galindo eta Trapagako lantegiekaz, nagusi lan sail onetan. Erandion ere ba-daukaguz mota onetako beste bi: Aguirena eta Cenemasa.

Laburtzeko, Bilbo inguruko industriagintzaren adar nagusiak onekek doguz: siderometalurgia, oiñarrizkoa ta transformazinoak; kimika astuna ta eratorriak; argindarra eta papergintza.

Baiña ez uste ainbesteko dibersifikapenik daukan Bilbo inguruko industriagintzan.

Metalurgia agiri da nabarmen eta gaillurrean beste guztien gainetik: 72.000 beargin ditu.

Kimikak, bere ondoan, 14.300 baiño ez ditu, eta papergintzak milla, ostaz ostaz.

Beste egunen batez jarraituko dogu inguru onetako eta enparaueetako zeaztasunekin, berez jakingarriak izan arren, inori gogaikarri biurtu ez dakiozan.

MENDIGANA

EUSKERAZ IKASTEN DABEN GUZTIENTZAT

Udako oporraldiak joan jakuz eta ikastaro barrian sartuta gagoz bete-betean.

Urtero bezela Euskerazaleak Alkartera etorri diran ikasleak asko izan dira, batzuk barriak ta besteak lengo urtetan gure ikastolan egondakoak, danak asmo bardiña dakarre: Euskera ikastea.

Ni lerro * oneitatik aolku * batzuk emoten ausartuko * naz:

- 1.—Lenengo ta bein aolku au ondo sartu bear dozue zuen buruan: euskerea ikastea ERREZA dala. Ez dala txinoa baiizen gatxa. Geienetan ori-esaten dabena edo alper batzuk dira edo ez dabe iñoiz alegiñik egin ikasteko. (Gatxa izatekotan adiñeko * pertsonentzako ta oso buru gogorak diranentzako izango da).
- 2.—Euskerea ikasteko ZALETASUNA euki bear da. Zaletasuna ta gure izkuntzarako maitasuna.
- 3.—Egun bakoitzean ez emon denpora larregirik ikasteko. Garrantzitsua dana auxe dozu: Egunero zertxo bat egin, naiz eta * 15 iroiren * bakarrik izan.
- 4.—Ziur asko, euskeraz ikasten asi ta iru bat illabetera sekulako beerakadea * izango dozu, zalantzazko * itxaso aundi batean ikusiko dozu zure burua, tarte orretan gogor izan eta jarraitu aurrera, beerakada ori etorri dan lez joango da ta. Alan da guztiz gogoan izan orrelako beste bi edo iru beerakada izango dozu-zala urrengo urteetan.
- 5.—Ikasten dozuna erabili bear dozu, bildur barik, txarto esaten ba'dozu urrengoan ondo esango dozu, lotsa ta bildurra alde batera laga *. Oso egokia izaten da zure maillako lagun bategaz alkartzea

ta bion artean berba egitea jo ta ke. Olan egiten ba'dozue laster askatuko zarie berba egiteko.

Askatasun au lortzeko irratiko euskal-irratsaioak entzutea ona izaten da, euskerazko liburu ta aldizkariak irakurtzea be egokia da, mezatara ba zoaz euskerazko mezatara joan, ume txikiakaz euskeraz egin eta beti al dozunean ikasi. Abestiak ere egokiak * izaten dira.

- 6.—Zalantza bat dozunean, zure irakasleari itandu edo bestelan zure lagun bateri baiña iñoiz bez gramatika aldetik ezertxo be ez dakian euskaldun bateri. Euskaldun geienak (euskal-gramatika ikasi ez dabena) erderazko esaldi bat euskeraz ipiñi bear dabenean txarto egiten dabe, ta au ez da arritzekoa, euren bizitza osoan beti euskeraz pentsatu dabe ta.
- 7.—Ez aitzu berba egiteko iztegia jakin bear dogula, iztegia ta aditzak *. Asieran * berba bat ez ba'dakizu, erderazkoa esan baiña kontuz! Gero berba ori ikasi egin bear dozu.
- 8.—Udan baserri batera joatea gauza ona da, baiña orretarako iztegia jakin bear dozu, bestelan lortzen dana zera da: baserriarrak erderaz egitea ta au lotsagarri izango litzake.
- 9.—Gogoan izan bizkaitarra zarala, Bizkaian bizi zarala ta geienetan bizkaitarrak berba egingo dozula.
- 10.—Bizkaieraz ikasi ondoren, beste euskalki bat ikasi.

Euskereak bear zaitu.

EUSKALDUN BARRI

IZKI - NASTEIA

A	D	K	J	I	L	O	B	L	U	A	G	I	T	X
G	I	U	N	K	O	N	A	I	N	D	I	A	Z	E
O	N	P	E	G	R	U	R	R	E	E	M	X	P	I
M	A	R	R	A	I	D	A	Ñ	O	S	T	O	T	J
E	N	O	P	B	L	A	N	I	K	E	U	K	Z	A
P	O	R	U	T	O	S	D	S	U	N	D	A	E	B
J	U	O	K	I	L	L	I	T	S	I	D	L	G	I
I	K	E	G	A	L	L	A	S	T	E	G	I	O	L
K	E	M	U	B	E	L	R	R	I	N	O	Ñ	T	A
E	L	A	J	S	O	P	A	X	P	E	Z	U	Z	K
B	U	S	K	I	G	E	N	T	J	A	L	L	A	D

Euskalerrian abadeak lan aundia egin dabe euskeraren alde ta Aberriaren alde. Gaurko izki-naste onetan bost abade ospetsuren abizenak agertzen dira:

1.—Londres eta Paris'ko irratietatik euskaldun eta egiaren alde berba egiten ebana.

2.—Euskaltzaindiko lendakari izandakoa.

3.—Ikerketa arloan lan aundia egiten diardu.

4.—Gure aldizkari onetan idazlan eta bertso batzuk idazten dauazan Bilbo'ko apaiz ospetsu bat.

5.—«Euskalerraren Yakintza» liburua idatzi eban.

Bost abizen onek topatzen ez ba'dozuz ikus azkenengo orrialdean.

ZALETASUNA NAGUSI!

EUSKALDUN BARRI

Erderazko esaera batek onela diño: «Gura dauanak geiago egiten dau, al dauanak baño» eta bai egi aundia auxe.

Zaletasunez * egiten dan lana, lan pozgarria izaten da naiz eta neketsua edo gatxa izan.

Geienetan zaletasunez egiten diran lanak ez dabe dirurik emoten eta zerbait emoten ba'dabe ziur egon bizitzeko aiña * ez dala izango.

Gaur egun jende askok eta batez ba gazte askok zaletasunez egiten dabe lana, politika arloan, * euskeraren alde, Erria ta euskal-jakintzaren alde. Alan da guztiz euskereak, jakintzak ta Erriak onelako geiago bear dauz, dagon egoeratik * urtetzeko.

Lan bat zaletasunez egiten danean, egillearen asmora ta burua lan orretan egoten da sartuta ta besterik ez dau pentsatzen. Eta emen ain zuzen be arrisku aundi bat dago.

Sarritan zaletasunez beterik lanean diarduan gazte orren inguruan gizontxu batzu egoten dira, gazte gizajo orrek egiten dauan lanetik ondorio batzuk ataratzeko, ospea, dirua ta abar. Itxura * onekoak izango dira gizon oneik baiña benetan eta barrutik dirana auxe da: diruzale batzuk eta «figurin» batzuk besterik ez.

Kontuz ba zaletasunez lanean diarduzeenok, orrelako «lagunak» topatzen ba'dozuez ez tontoak izan, bestelan lortuko dozuena gauza bat bakarrik izango da: Erre egingo zarie, ta ori ezta komeni.

Zaletasunez eta gogo onez beterik dagon jende asko bear dogu gure Euzkadi onetan. Miiñaz lan egiten dabenik ez dogu bear, jauntxoak ez doguz bear, euren berua bakarrik agertu gura dabenak ez doguz bear.

Benetako langilleak bakarrik dira bearrekoak.

ZANGRONIZ

(9n. orrialdetik)

Jokin Zaitegi (G. B.)

«Berriz ere Goldaketan» deritxon olerki-saillean, onela irakurten dogu: «Zaitegi liburu onen egilea oraingo idazle ta olerkarien artean ezaguna dugu... Olerki bilduma ontan Zaitegi'ren euskalgogoia larru-gorritan ageri da, erabat euskaldun eta fededun ageri baita. Okerrean ezpa-gaude, geroago ta barnerago doa Ederraren barruti jorian. Aspaldidanik agertu zuen bere burua eder-miñez jota. Neurtizkeraren teknika geroago ta mendea-nago du, baita, euskera bera ere».

Eta liburu oni soillik gagokiozala, jator eta itzulitakoen artean, 62 olerki ditu guztira.

Maisuki osotuak danak. ezertariko akats barik.

Zer asko ditu kantagai, berezko danez; baiña euskal gaiak zoratzen dabela dirudi, aberriak, euskerak, euskotar gizaseme errimeak, euskal idazle bizkorak, eta olakoak.

Olerkiari erantsirik, pozik diardu noizka, baita itunik be noizean bein.

«Neguan lore» deritxonean, esate, baterako, leen-aldia illun datorkio gogora; geroa, barriz, gaupen erdizka baiño ez ikusten.

Bera, alan be, bertso barri laburrak egiten saia? Gaztetan lez? «Olerkari zar onek/ barnean izotza...» Zelan, ba, bertsoak gartsu eio? Negulilia agertu jako, ta onek edur artean irripar dagian lez, berak be biotza argitan, bertso barri laburrak osotuko.

Biarritze'n kezka ebillen, Aberriaren geroa illun bai ekusan; arnas estuka gure euskera, laiño baltzetan gure lurra; ibaietan izotza ta garaiak edur; ez txori-txiorik alaikor, ezta eltxorik be baztarretan.

Bizia illik!

Baiña, negu larri onetan be, baikor, itxarope-nez beterik ikusi nai eban euskalduna.

Ona «Negu-minean» deritxon olerkiaren laugarren aapaldia:

*Negu-minpean dugu Aberri osoa,
gogorik ez urritu, euskaldun zintzoa!
Liliz, txoriz ta zituz beterik geroa,
ba-datorke euskaldun zindoen aroa.*

Zoritxar aundi baten zamapean ikusten eban Euzkadi, burdinetan Prometeu lez. Onela didaz:

*Ilunak artuaz Euzkadi doa,
eta uzterpean gaude loturik:
gure aberriak askatasunik
eztu, burdinetan dugu gaixoa.*

Gain-bera jausi jako ondoeza. Eta askatasun eguzkia itxartu nairik, oillarra izan nai leuke, kurruru egiteko, ta gaupen dan Aberria argitan jarteko!

Maite eban eusko-ikurriña, ta beroni eskiñi eutson olerki giar bat, 86 aapaldikoa, Biarritze'n 1961-7-21'an egiña, 8 ta 7'ko neurrian.

Urte batzuk dirala Arrasate'ko erriak egindako omenaldian, berak aren gartsu Udaletzeko aretoan irakurria. «Ikurriña dut kantagai —diño— zuri, gorri, muskerra. Irakur 24'gn.aapaldia:

*Zeu ikusita badakust euskal-gudaria zai:
badantzat barrandariak esaten dula «ernai!»
Zireun gizonen oiua «Gora Euzkadi» alai
badantzut adar-otsekin batera zelaiz-zelai.*

Berak berenez egiñetaz gaiñera, beste izkuntzetatik be-itzuli ebazan, griegotik, latiñetik, frantsesetik, doitxeratik, inglesetik, katalanetik eta abar. Eta naiz olerkari jator, naiz itzultzaile, beti ta nun-nai agiri jaku olerkari guren, ponpox, klasi-kua.

Arrasate erriarentzat itxi ei dau bere liburu-tegi aberatsa.

AITA ONAINDIA

Araudi Edo "Estatutuatzaz" Bertsu Batzuk

1

Emeretzireun urte jazota
iruta emeretzian,
«Estatutua» baieztu dabe
Madrid'eko Aldundian;
esan daikegu egon gaizala
Euzkadi'n be onartzian,
anaitasunez asarre barik
euzkaldunezko bidian.

2

Gernika'n einda «estatutua»
Euzkadi'ren onerako,
baiña Madrid'en «Estatutua»
onartu ez eurentzako;
orregatikan Nabarra ta «fop»
geratu euren aldeko,
era ortako «estatutua»
ez da eder danontzako.

3

Izan ez arren «estatutua»
dana Gernika'n ein dana,
goguan artu bear dana da
Madril-darraiki kentzen yakena;
urte mordotan eduki ez da
orain lortu deuzkuena,
esan daikegu geien-geienok
«ONTZAT ARTZEA
| ONENA».

4

Ludi onetan ez gagoz iñoiz
guztiok iñon batera,
orreitxik oiñ be «estatutua»
danak ez dauz onartzera;
eskuindarra izan ez bestek
dagoz Euzkadi'n aldera,
baiña espaiñar eskoitar orreik
bai beti gu zapaltzera.

5

Euzkadi'kuok kontuz ibil ba
Auteskunde egunian,
gero balio ez deusku bape
atz eite buru ganian;
itzaldietan jarri giñake
zalantza «duda» unian,
zalantza ori kentzen saiatu
berandu baiño lenian.

6

Esan daikegu asko ein dana
«fop» etarrak kenduteko,
eta batezbe Nabarra Erkia
Euzkadi barrun sartzeko;
erri geienan naia izanda
orreik orrela eiteko,
JAINKOA ETA LEGE
| ZARRAK be
Euzkadi'ntzat izateko.

7

Poza eduki dogu geienok
«fop» etarrak kenduteko,
Euzkadi'n orreik beti dituguz
euzkotarrak zapaltzeko;
orain etorri garaia eta
orreik barrun geratzeko
oker andia geratzen bait da
EUZKAL-ERRIA'
| RENTZAKO.

8

Euzkadi'n Autarkia dogunok
bear ditugu pentsatu,
gure autarkiz «baitz-ingia»
bear geinkegu aurkeztu;
urte mordotan egin gaituez
etsai gogorak PAIRATU,
aurrerantzian ez egiteko
gogo onez arduratu.

9

Batzarretako itzaldietan
entzungo dogu itz asko,
batzuk ezetza, bestek baitza
ta bestek uko eiteko;
nire ustetan ona izango
Euzkadi'n geienontzako,
ARAUDI ortan dana ez badau
urrengoz dana sartuko.

10

Lortzen asiaz esperantza du
urrengoz dana lortzeko,
gure asabai kendutakuak
geureak digulako;
guk ez dogu nai madridarrenik
iñolaz be guretzako,
baizik nai dogu geure-geureak
orreik beti eskatuko.

**AZPEITIA TAR
GOTZON'EK**

In Memoriam

Jokin Zaitegi

Negar ta negar dagi
euskerama onak.
Seme bat galdu daula,
or bere samina.

Euskal erri baratzen
zan lore bikain bat,
bere igali ugari
lerden ta argiak.

Bere adimen zorrotz
askar ta soliak
ikasi zitun guztiz
euskeran sustraiak.

Idatziz bete zitun
euskeran arloak,
aldizkari sakonez
argitu adimenak,

Ebatziz bare-bare
euskeran burrukak,
iñor mindu bagarik
naiz arerioak.

Abadetza ta euskera
bere maite biak,
eurakaz ezkondu
bere soin biotzak.

Orrek erakutsi dau,
euskaldun ta apaizak,
kristau ta euskal zale
ez arerioak.

Euskal jakintza arloak
ez dira ugariak,
Zaitegi galduagaz
oin urriagoak.

Meite neban laguna
gazte gaztetatik,
laga nau eriotzan
biotza urraturik.

Baña lagun ta enparau
indar-itxaropen
Zaitegi eredu ta
onak bere ondoren.

Erein eban azia,
ugari-ugari,
euskal jakintza zelai
jarraiko da bizi.

ZAR-GAZTE

EUSKERAZALEAK

Konturatu barik beste ikastaro barri bat eldu jaku. Jende asko etorri da gugana ta aurten gauza edo klase barri batzuk lortu doguz gure ikasleentzat.

* * *

Aurten alkarrizketako klaseak izango dira gure ikastolan. Gure ustez alkarrizketea oso gauza egokia da erreztasuna lortzeko, gañera lengo urteetan gure ikasleak sarritan eskatzen eben onelako klase bat.

* * *

Irakasleak gertatzeko ikastaroa, asteartean eta eguenetan arratsaldeko seiretatik zortzirak arte. Ikastaro onetan metodolojia ta euskal-jakintza ikasiko da, dan-dana euskeraz izango da.

* * *

Aurten artu-emon bat euki gura genduke gure ikasleakaz, euren artean batzuk gure ekintzetan lan egiteko gertu egongo dirala uste dogu ta.

* * *

Gure Alkartera etorri zarien irakasle ta ikasle guztioi ongi etorri! Ia danon artean zerbait egiten dogun euskeraren alde.

IBARRA'TAR BERNARDO

IZTEGIA

—lerro	= línea	—egoki	= adecuado
—aolku	= consejo	—aditz	= verbo
—ausartu	= atreverse	—asieran	= al principio
—adin	= edad	—zaletasuna	= afición
—naiž eta	= aunque	—aiña	= tanto como
—iroiren	= minuto	—arlo	= asunto
—beerakada	= bajonazo	—egoera	= estado (situación)
—zalantza	= duda	—itxura	= figura, traza
—laga	= dejar		


OARRA: «ZER» onen 24'gn. zenbakian kili-kili eguna il onetan ospatuko zala iragarri genduan, baña azkenengo momentuan atzeratu egin da ta datorren udabarrian ospatuko da Iruña'n.

IZKI-NASTEAREN ERANTZUNA

A	D	K	J	I	L	O	B	L	U	A	G	I	T	X
G	I	U	N	K	O	N	A	I	N	D	I	A	Z	E
O	N	P	E	G	R	U	R	R	E	E	M	X	P	I
M	A	R	R	A	I	D	A	Ñ	O	S	T	O	T	J
E	N	O	R	P	B	L	A	N	I	K	E	U	K	Z
P	O	R	U	T	O	S	D	S	U	N	D	A	E	B
J	U	O	K	I	L	L	I	T	S	I	D	L	G	I
I	K	E	G	A	L	L	A	S	T	E	G	I	O	L
K	E	M	U	B	E	L	R	R	I	N	O	Ñ	T	A
E	L	A	J	S	O	P	A	X	P	E	Z	U	Z	K
B	U	S	K	I	G	E	N	T	J	A	L	L	A	D

ZER

Colón de Larreátegui, 14 - 2.º dcha. BILBAO-1



70 urte Bizkaiari laguntzen



CAJA DE AHORROS 
MUNICIPAL DE BILBAO

ONDO ERANTZUTEN DAU